Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

2359

AGINDUA, 2009ko apirilaren 7koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Batxilergoko Aparteko Sarietarako deialdia egiten duena.

Batxilergoko curriculuma ezarri eta Euskal Autonomia Erkidegoan jartzen duen otsailaren 3ko 23/2009 Dekretuan adierazten denez, Batxilergoaren helburua hau da: ikasleei gizarte-funtzioak garatzeko eta bizitza aktiboan arduraz eta gaitasunaz txertatzeko aukera emango dieten prestakuntza, adimen-heldutasuna eta giza heldutasuna, jakintzak eta trebetasunak ematea.

Deialdi hau Batxilergoko ikasketak ikasturte honetan (2008-2009) amaitzen dituzten ikasleei egiten zaie. Izan ere, beronen bitartez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak saria eman nahi die helburu horiek lortzeko etengabe saiatu diren horiei.

Hori guztia dela bide, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak proposatuta, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da 2008-2009 ikasturteko Batxilergoko Aparteko Sarietarako deia egitea, eta sariok emateko betekizunak eta prozedurak ezartzea.

2. artikulua.– Sari kopurua.

Kontuan hartuta 2008-2009 ikasturtean Batxilergoko bigarren kurtsoan edo mailan matrikulatutako ikasleen kopurua, 15 aparteko sari emango dira Euskal Autonomia Erkidegoan.

3. artikulua.– Betekizunak.

1.– Batxilergoko Aparteko sarien deialdian parte hartu ahal izango dute Batxilergoko edozein modalitatetako maila biak (1. eta 2. mailak) gainditu dituzten ikasle guztiek, baldin eta 2008-2009 ikasturtean bukatu badituzte, bai ikastetxe publikoetan bai pribatuetan.

2.– Aparteko Sarira aurkeztu ahal izateko, Batxilergoko edozein modalitatetako bi mailetan lortutako noten batez bestekoak 8,75 puntu edo gehiagokoa izan beharko du.

3.– Honako hauek baino ez dira zenbatuko batez besteko nota zehazteko: ikasitako Batxilergoko bi maila

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

2359

ORDEN de 7 de abril de 2009, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convocan los Premios Extraordinarios de Bachillerato.

En el Decreto 23/2009, de 3 de febrero, por el que se establece el currículo de Bachillerato y se implanta en la Comunidad Autónoma del País Vasco, se indica que el Bachillerato tiene como finalidad proporcionar al alumnado formación, madurez intelectual y humana, conocimiento y destrezas que le permita progresar en su desarrollo personal y social e incorporarse a la vida activa y a la educación superior.

El Departamento de Educación, Universidades e Investigación quiere premiar a quienes más se han distinguido en el esfuerzo continuado por conseguir dichos objetivos, a través de esta convocatoria dirigida al alumnado que finalice sus estudios de Bachillerato en el presente curso 2008-2009.

Por ello, y a propuesta del Director de Innovación Educativa,

DISPONGO:

Artículo 1.– Objeto.

La presente Orden tiene por objeto convocar los Premios Extraordinarios de Bachillerato del curso 2008-2009 y establecer los requisitos y procedimientos para su concesión.

Artículo 2.– Número de premios.

Dado el alumnado matriculado en segundo curso de Bachillerato durante el curso escolar 2008-2009, se concederán 15 Premios Extraordinarios en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 3.– Requisitos.

1.– Podrán optar al Premio Extraordinario aquellos alumnos y alumnas, tanto de centros públicos como privados, que habiendo superado los dos cursos (1.º y 2.º) de cualquiera de las modalidades de Bachillerato, los hayan finalizado en el curso 2008-2009.

2.– Para optar al Premio Extraordinario será necesario que la media de las calificaciones obtenidas en los dos cursos de cualquiera de las modalidades del Bachillerato sea igual o superior a 8,75 puntos.

3.– Para obtener la nota media se computarán, exclusivamente, las calificaciones obtenidas en las mate-

horietako irakasgai komunetan, modalitate bakoitzeko irakasgai espezifikoetan eta aukerako irakasgaietan lortutako kalifikazioak.

4.– Batez besteko nota zehazteko, aurreko paragrafoan aipatutako irakasgai guztien batez besteko aritmetikoa egingo da. Bestalde, abenduaren 16ko 2438/1994 Errege Dekretuak (1995eko urtarrilaren 26ko BOE) bere 5.3. artikuluan xedatuari jarraituz, batez besteko nota horretan ez da kontuan hartuko Erlijioko irakaskuntzetan ateratako kalifikazioa.

4. artikulua.– Proben edukia.

Probak gaztelaniaz zein euskaraz egin ahal izango dira, ikasleek aukeratutakoaren arabera, eta honako ariketa hauek izango dituzte:

Lehenengo ariketa:

a) Izaera orokor, zientifiko edo teknikoko testu bati buruzko konposizioa eta/edo iruzkina. Ikasleak aukeratuko du testuaren hizkuntza: euskara ala gaztelania.

b) Izaera orokor, zientifiko edo teknikoko testu bati buruzko konposizioa eta/edo iruzkina. Testuaren hizkuntza: ikasleak ikasitako derrigorrezko atzerritar hizkuntzan. Hiztegirik gabe egingo da ariketa hau, dagokion hizkuntzan.

Bigarren ariketa:

Ikasleak Batxilergoko 2. mailan egindako modalitateko irakasgai espezifikoen edukien gaineko hainbat galdera edo ariketa praktiko idatziz erantzutea edo ebaztea. Modalitateko hiru irakasgaietatik bi aukeratu beharko ditu ikasleak.

5. artikulua.– Eskabideak.

1.– Aurreko paragrafoan jasotako baldintza guztiak betetzen dituzten ikasleek, baldin eta Aparteko Sarian parte hartu nahi badute, ondoren aipatzen den tokian eman beharko dute izena, agindu hau argitaratzen denetik aurrera: zein ikastetxetan matrikulatuta dauden, ikastetxe horri dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako Ikuskaritza Burutzan. Izena emateko epea 2009ko maiatzaren 29an bukatuko da. Halaber, eskabideak posta ziurtatuaren bidez edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 38. artikuluan aurreikusirik dagoen beste edozein prozedura erabiliz igorri ahal izango dira helbide berera.

2.– Izena eman ahal izateko, aginduaren eranskinean jasotako eredua bete beharko da. Bestalde, ikastetxe publiko edo pribatuaren idazkariak egiaztatu beharko ditu eskatzailearen datu akademiko eta pertsonalak. Beraz, ez dira onartuko batez besteko nota zenbakiz adierazita ez duten eskaerak, ezta idazkariak eskuz egindako sinadura eta ikastetxearen zigilua ez daramaten eskaerak ere.

3.– Baldin eta Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak sumatzen badu aurkeztutako eskabidean hutsen bat edo zerbait gaizki jarrita dagoela, interesatuari agindeia

rias comunes, específicas de modalidad y optativas de los dos cursos de Bachillerato cursados.

4.– La nota media será la media aritmética de las calificaciones del conjunto de materias a las que se refiere el apartado anterior. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 5.3 del Real Decreto 2438/1994, de 16 de diciembre (BOE del 26 de enero de 1995), en dicha nota media no se tendrá en cuenta la calificación obtenida en las enseñanzas de Religión.

Artículo 4.– Contenido de las pruebas.

Las pruebas, que podrán ser realizadas en Euskara o Castellano, según su opción, constarán de los ejercicios siguientes:

Primer ejercicio:

a) Composición y/o comentario sobre un texto de carácter general, científico o literario, de lengua española o de lengua vasca (a elegir por la persona participante).

b) Composición y/o comentario sobre un texto de carácter general, científico o literario en la lengua extranjera cursada como obligatoria. El ejercicio se realizará sin diccionario en el idioma correspondiente.

Segundo ejercicio:

Resolución por escrito de cuestiones o ejercicios prácticos sobre los contenidos de dos de las tres materias de modalidad que hayan sido cursadas como propias en 2.º de Bachillerato, a elección de la persona participante.

Artículo 5.– Solicitudes.

1.– Los alumnos y alumnas que, reuniendo los requisitos establecidos en el apartado tercero, deseen optar al Premio Extraordinario, deberán inscribirse, a partir de la publicación de esta Orden, en la Jefatura de Inspección de la Delegación Territorial de Educación correspondiente a su Centro, finalizando el plazo el día 29 de mayo inclusive. Las solicitudes también podrán remitirse al mismo destino por correo certificado o por cualquier otro procedimiento previsto en el artículo 38 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– La inscripción se realizará mediante la cumplimentación del anexo de esta Orden. Los datos académicos y personales irán avalados por la o el Secretario del Centro público o privado, no admitiéndose aquellas inscripciones en las que no conste la nota media expresada numéricamente y refrendada por la firma autógrafa de la o el Secretario y sello del Centro.

3.– Si la Dirección de Innovación Educativa advirtiera en la solicitud presentada la existencia de algún defecto o inexactitud, se requerirá a la persona intere-

egingo zaio hamar eguneko epearen barruan oker dagoena zuzendu edo manuzko diren agiriak aurkez ditzan, eta ohartaraziko zaio horrela egin ezean, interesatuak bere eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 42. artikuluan ezarririk dagoenaren araberako ebazpena eman ondotik.

4.– Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek erabiltzea eta argitaratzea baimenduko dituztenak, fitxategi batean jasoko dira. Fitxategi honen helburua deialdi honetako sariak eta deialdi honekin zer ikusia duten beste edozein prozedura edo espediente administratiboa kudeatzea izango da, eta baita deialdi honetara aurkezten diren pertsonei deialdiaren garapenari buruz informatzea ere. Fitxategi honen arduraduna Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza da. Lege horretan adierazitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta aurkatze-eskubideak erabiltzeko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzara jo beharko da, helbide honetara: Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Halaber, deialdi honetan parte hartu duten pertsonek fitxategian dauden datu pertsonalak Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri-administrazioei uzteko baimena ematen dute, deialdi honen xede berdinetarako bakarrik eta, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari baimena ematen diote, beste erakunde publiko batzuetan, aurkeztutako dokumentuen benetakotasuna egiaztatzeko.

6. artikulua.– Data eta lekua.

1.– Probak 2009ko ekainaren 17an egingo dira, 15:30ean, honako ikastetxeetan:

Bilboko IES Miguel de Unamuno BHI, Poza Lizentziatuaren kalea, 1.

Vitoria-Gasteizko IES Federico Baraibar BHI, Nieves Cano kalea, 14.

Donostiako IES Usandizaga-Peñaflorida-Amara BHI, Pio XIIaren plaza, z.g.

2.– adierazitako hiru tokietako zeinetan egin nahi duten proba adierazi beharko dute eskatzaileek eskabidean.

7. artikulua.– Epaimahaia.

1.– Probez arduratuko diren epaimahaiek ondoko kideak izango dituzte: ikuskari lanetan diharduten Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko funtzionarioak, eta probako ariketetan erabilitako gaietan espezializatu diren irakasle numerarioak. Funtzionario eta irakasle horiek atxikita dauden organo eskudunek izendatuko dituzte horiek guztiak.

sada para que en un plazo de 10 días subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, previa resolución dictada de conformidad con lo establecido en el artículo 42 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

4.– De conformidad con la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, y con la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, los datos personales recogidos en la tramitación de esta convocatoria, cuyo tratamiento y publicación es autorizado por los y las participantes en la misma, serán incluidos en un fichero cuyo objeto será gestionar la presente convocatoria de premios y cualquier otro procedimiento o expediente administrativo relacionado con la misma, así como para informar a las personas concurrentes a dicha convocatoria de su desarrollo. El o la responsable de este fichero es la Dirección de Innovación Educativa. Los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición se podrán ejercer ante la Dirección de Innovación Educativa, dirigiéndose para ello a la siguiente dirección: calle Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Asimismo, las personas concurrentes a esta convocatoria dan su consentimiento a la cesión de datos personales contenidos en el fichero a otras Administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco para finalidades coincidentes con el objeto de la convocatoria y autorizan a la Dirección de Innovación Educativa a comprobar en otros organismos públicos la veracidad de los documentos presentados.

Artículo 6.– Fecha y lugar.

1.– Las pruebas se celebrarán el 17 de junio de 2009 a las 15:30 horas en:

IES Miguel de Unamuno BHI de Bilbao, c/ Licenciado Poza, 1.

IES Federico Baraibar BHI de Vitoria-Gasteiz, c/ Nieves Cano, 14.

IES Usandizaga-Peñaflorida-Amara BHI de Donostia-San Sebastián, Plaza Pío XII, s/n.

2.– Las personas solicitantes deberán indicar en la solicitud el lugar elegido para la prueba, de entre los tres mencionados.

Artículo 7.– Tribunales.

1.– Los Tribunales encargados de efectuar las pruebas estarán constituidos por funcionarios y funcionarias del Departamento de Educación, Universidades e Investigación que ejerzan la función inspectora y por profesorado numerario especialista en las diversas materias que compongan la prueba, siendo nombrados por los órganos competentes a los que estén adscritos.

2.– Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak izendatutako ikuskaria izango da epaimahaiburua, eta kategoria administratibo apalena duen irakasle numerarioa izango da idazkaria. Baina bat baino gehiago egonez gero egoera berean, kidegoan antzinatasun txikiena duena izango da idazkaria. Pertsona horiek izendatzeko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.5 eta 6. artikuluetan ezarritakoa hartuko da kontuan.

3.– Epaimahai horretan parte hartu eta laguntzeagatiko ordainketak emango dira, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko Dekretua hirugarren aldiz aldatzeko ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuak eta adierazitako irizpideen arabera.

8. artikulua.– Ebazpena.

1.– Ariketa guztietan batez besteko kalifikaziorik handiena ateratzen dituztenek jasoko dituzte sariak. Epaimahaiak proposatuko duen sarituen kopurua inoiz ez da 2. artikuluan adierazitakoa baino handiagoa izango.

2.– Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak ebatziko du deialdia, goian adierazi den Epaimahaiak proposamenak egin ondoren.

3.– Behin-behineko zerrenda jasotzen duen ebazpena 2009ko ekainaren 30ean jarriko da jendaurrean Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetan. Erreklamazioak egiteko epea bost egun baliodunekoa izango da, egun horretatik aurrera.

4.– Ebazpena sarituei jakinaraztearen kaltetan gabe, behin betiko zerrenda duen ebazpena arestion aipatu toki horietan jarriko da jendaurrean, 2009ko uztailaren 14an jarri ere. Eskariak aurkezteko epea amaitzen den egunetik eta gehienez ere hiru hilabeteko epean ez bada ebazpen hori jakinarazi, eskariak ezetsitzat jo daitezke, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 44.1 artikuluak dioenaren arabera.

5.– Jakinarazten den ebazpenaren aurka, edo ebazteko epea ebazpen adierazirik izan gabe igarotzen bada, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 114. artikuluan agindutakoarekin bat.

9. artikulua.– Ematen diren sariak.

1.– Aparteko Saria eskuratzen duten ikasleek eskubidea izango dute eurentzako beren beregi antolatuko den bidaia-programan parte hartzeko, atzerrian aleman, frantses edo ingeleseko ikastaroak egiteko 2010. urteko udan. Bidaia hori hasi baino hiru hilabete lehenago arte uko egin ahal izango diote saridunek bidaiari, baina horrek ez du esan nahi Batxilergoko Aparteko Sari uko

2.– La presidencia del Tribunal será designada por el Director de Innovación Educativa entre quienes ejerzan la función inspectora, y actuará como secretario o secretaria del Tribunal, el profesor o profesora de menor categoría administrativa, y si son varios, el de menor antigüedad en el cuerpo. En la designación de estas personas se tendrá en consideración lo establecido en el artículo 20.5 y 6 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

3.– Se abonarán las asistencias por la participación y colaboración en este Tribunal de acuerdo con los criterios indicados en el Decreto 121/2006, de 13 de junio, sobre indemnizaciones por razón de servicio.

Artículo 8.– Resolución.

1.– Serán premiados o premiadas quienes obtengan mayor calificación media en el conjunto de los ejercicios. El tribunal propondrá un número total de premiados y premiadas no superior al expresado en el artículo 2, e incluirá todas las personas presentadas con sus correspondientes calificaciones.

2.– La convocatoria será resuelta por el Director de Innovación Educativa, a propuesta del Tribunal arriba indicado.

3.– La Resolución con la lista provisional será publicada en las Delegaciones Territoriales de Educación el 30 de junio de 2009, estableciéndose el periodo de reclamación en cinco días hábiles desde dicho día.

4.– Sin perjuicio de la notificación de la Resolución a las personas premiadas, la Resolución con la lista definitiva se expondrá en los mismos lugares el 14 de julio de 2009. Si en el plazo máximo de tres meses, a contar desde el día de finalización del plazo de presentación de las solicitudes, no ha sido notificada dicha Resolución, las solicitudes podrán entenderse desestimadas, a tenor de lo que el artículo 44.1 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

5.– Contra la Resolución que se notifique, o transcurrido el plazo para resolver sin que haya recaído resolución expresa, podrá interponerse por los interesados e interesadas recurso de alzada ante el Consejero de Educación, Universidades e Investigación, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 114 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 9.– Premios que se conceden.

1.– Quienes obtengan el Premio Extraordinario tendrán derecho a participar en el programa de viajes que se organice expresamente para la realización de cursos de alemán, francés o inglés en el extranjero durante el verano del año 2010. Las personas premiadas podrán renunciar a este viaje hasta tres meses antes de su inicio, sin que ello les obligue a renunciar al Premio Extraordi-

egin behar diotenik. Kasu horretan, bidaia-programa horretan soberan geratzen den plaza hurrengoari esleituko zaio, hain zuzen ere ariketa guztien batez besteko kalifikaziorik altuena duenari, 8.1. artikuluan adierazitakoaren arabera.

2.– Gainera, 935na euroko saria jasoko dute; hortaz, 14.025 euro banatuko da.

3.– Batxilergoko sari nazionalera aurkeztea ere izango dute, horretarako izena eman ondoren.

10. artikulua.– Ziurtagiria.

1.– Batxilergoko Aparteko Saria lortzen duten ikasleek sariaren ziurtagiri bana jasoko dute.

2.– Aparteko Saria lortu izana ikaslearen espediente akademikoan jasoko da. Hain zuzen ere, ikasleak Batxilergoa amaitu duen ikastetxeko idazkariak egingo du idatzohar hori.

3.– Ikasleen kalifikazio-liburuetan diligentzia bat jarriko da, Aparteko Saria lortu izana jasoko duena.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Deialdi honek aurreikusi ez duen guztirako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, aplikatuko da.

Bigarrena.– Deialdi agindu honek, bertan aurreikusten denaz gain, ondokoa izango du arau: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuz onetsitako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren VI. tituluak ezarritakoa.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Aginduaren aurka, beraz, interesatuek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal diote Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan, bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Agindu honek ondorioak izango ditu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko apirilaren 7a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

nario de Bachillerato. La plaza sobrante de este programa de viajes que se originaría en este caso se adjudicará a la siguiente persona con mayor calificación media en el conjunto de los ejercicios, de acuerdo con lo indicado en el artículo 8.1.

2.– Además tendrán un premio personal de 935 euros, distribuyéndose 14.025 euros a partes iguales.

3.– También podrán optar, previa inscripción, al Premio Nacional de Bachillerato.

Artículo 10.– Certificación.

1.– Quienes obtengan el Premio Extraordinario de Bachillerato recibirán un Certificado acreditativo del mismo.

2.– La obtención del Premio Extraordinario será anotada en el expediente académico correspondiente por la o el Secretario del centro en el que ha finalizado el Bachillerato.

3.– En los libros de calificación se estampará la diligencia en la que constará la obtención del Premio Extraordinario.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.– En todo lo no previsto en la presente convocatoria, será de aplicación la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Segunda.– Esta Orden de convocatoria, además de lo previsto en la misma, se regirá por lo establecido en el Título VI del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra la presente Orden que agota la vía administrativa, podrán las personas interesadas interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Educación, Universidades e Investigación en el plazo de un mes o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses, a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de abril de 2009.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

I. ERANSKINA

ESKABIDE-ORRIA
(aurrealdea)

Deiturak ..... Izena .....
Jaioteguna ..... Sexua ..... Telefonoa .....
Helbidea (harremanetan jartzeko) .....
Herria ..... Herrialdea ..... PK .....
Batxilergoko ikasketak egin zituen ikastetxea (edo ikastetxeak) .....
Herria ..... Herrialdea ..... PK .....

Non egingo du proba?:
Bilbao / Donostia-San Sebastián / Vitoria-Gasteiz.

Parte hartu nahi du urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak araututako Batxilergoari dagozkion Aparteko Sariak, 2009ko ..... ren .....(e)ko Aginduaren bidez deituak, lortzeko probetan. Atzealdean adierazitako gaiak aukeratu ditu horretarako.

.....(e)n, 2009ko .....aren .....(e)(a)n
(Sinadura)

IKASTETXEAK BETETZEKO

..... jaun-andreak
.... ikastetxeko idazkariak

ZIURTATZEN DU:

Goian adierazitako pertsonak ikastetxe honetan bukatu dituela Batxilergoko ikasketak .....(e)ko batez besteko notarekin, eta beraz, Batxilergoko Aparteko Saria eskuratzeko proban parte hartzeko baldintzak betetzen dituela, deialdiaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera. Deialdi-aginduaren hirugarren artikuluak ezarritakoaren arabera atera da batez besteko kalifikazio hori.

.....(e)n, 2009ko .....ren .....(e)(a)n

O.E. Zuzendaria (Sinadura eta zigilua) Idazkaria.

ESKABIDE-ORRIA
(atzealdea)

Probetarako aukeratu diren irakasgaiak:
1.a) ariketa: Gaztelania edo Euskara.
1.b) ariketa: Atzerriko hizkuntza: Alemana–Frantsesa–Ingelesa.
2. ariketa: Batxilergoko 2. mailan ikasitako modalitateko hiru irakasgaietatik bi aukeratu behar dira. Laukian ageri den «x» horrek hauxe adierazten du: modalitate bakoitzetik zeintzuk aukeratu daitezkeen. Horietako bi markatu ezkerreko zutabean.

	Natura eta Osasun zientziak	Giza eta Gizarte zientziak	Teknologia	Arteak
Biologia	X			
Marrazketa Artistikoa II				X
Marrazketa Teknikoa II	X		X	X
Enpresen Ekonomia eta Antolam.		X		
Elektroteknia			X	
Fisika	X		X	
Diseinuaren Oinarriak				X
Geografia		X		
Grekoa II		X		
Musikaren Historia		X		
Artearen Historia		X		X
Irudia				X
Latina II		X		
Matematika II	X		X	
Giz. Zientziei aplik. Matematika II		X		
Mekanika			X	
Kimika	X			
Industria Teknologia II			X	

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek erabiltzea eta argitaratzea baimenduko dituztenak, fitxategi batean jasoko dira. Fitxategi honen helburua deialdi honetako sariak eta deialdi honekin zer ikusia duten beste edozein prozedura edo espediente administratiboa kudeatzea izango da, eta baita deialdi honetara aurkezten diren pertsonei deialdiaren garapenari buruz informatzea ere. Fitxategi honen arduraduna Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza da. Lege horretan adierazitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta aurkatze-eskubideak erabiltzeko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzara jo beharko da, helbide honetara: Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Halaber, deialdi honetan parte hartu duten pertsonek fitxategian dauden datu pertsonalak Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri-administrazioei uzteko baimena ematen dute, deialdi honen xede berdinetarako bakarrik eta, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari baimena ematen diote, beste erakunde publiko batzuetan, aurkeztutako dokumentuen benetakotasuna egiaztatzeko.

ANEXO I

HOJA DE SOLICITUD
(anverso)

Apellidos ..... Nombre ....
Fecha de nacimiento ..... Sexo ..... Teléfono .....
Dirección (a efectos de comunicación) ....
Localidad ..... Provincia ..... CP .....
Centro/s en que ha cursado Bachillerato:.....
Localidad ..... Provincia ..... CP .....

Realizará la prueba en:
Bilbao / Donostia-San Sebastián / Vitoria-Gasteiz

Desea tomar parte en las pruebas para la obtención de los Premios Extraordinarios del Bachillerato regulados por la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre y convocados por Orden de ..... de ..... de 2009, para la que elige las materias indicadas en el reverso.

..... a, ... de ..... de 2009
(Firma)

A CUMPLIMENTAR POR EL CENTRO DOCENTE

D./Dña ..... Secretario o Secretaria del centro citado

CERTIFICA QUE:

La persona arriba indicada ha finalizado sus estudios de Bachillerato en este centro con calificación media de .... puntos, por lo que reúne los requisitos establecidos para poder participar en la prueba para la obtención del Premio Extraordinario de Bachillerato, de acuerdo con lo establecido en el artículo tercero de la convocatoria. Dicha calificación media se ha obtenido de acuerdo con lo establecido en el artículo tercero de la Orden de convocatoria.

..... a, ... de ..... de 2009

V.ºB.º La o el director (Firma y sello) *La o el Secretario.*

HOJA DE SOLICITUD
(Reverso)

Materias elegidas para las distintas pruebas:
Ejercicio 1.º a): Lengua castellana o Euskera.
Ejercicio 1.º b): Lengua extranjera: Alemán – Francés – Inglés.
Ejercicio 2.º: De las tres materias de modalidad cursadas en 2.º Bachillerato, deben elegirse dos. La «x» en el cuadro indica las que pueden ser elegidas de cada modalidad. Marcar dos de ellas en la columna de la izquierda:

	Ciencias de la Naturaleza y de la Salud	*Humanidades y Ciencias. Sociales*	*Tecnología*	*Artes*
Biología	*X*			
Dibujo Artístico II				*X*
Dibujo Técnico II	*X*		*X*	*X*
Economía y Organización de Empresas		*X*		
Electrotecnia			*X*	
Física	*X*		*X*	
Fundamentos de Diseño				*X*
Geografía		*X*		
Griego II		*X*		
Historia de la Música		*X*		
Historia del Arte		*X*		*X*
Imagen				*X*
Latín II		*X*		
Matemáticas II	*X*		*X*	
Matemáticas para las CC. Sociales II		*X*		
Mecánica			*X*	
Química	*X*			
Tecnología Industrial II			*X*	

De conformidad con la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, y con la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de titularidad pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, los datos personales recogidos en la tramitación de esta convocatoria, cuyo tratamiento y publicación es autorizado por los y las participantes en la misma, serán incluidos en un fichero cuyo objeto será gestionar la presente convocatoria de premios y cualquier otro procedimiento o expediente administrativo relacionado con la misma, así como para informar a las personas concurrentes a dicha convocatoria de su desarrollo. Es responsable de este fichero la Dirección de Innovación Educativa. Los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición se podrán ejercer ante la Dirección de Innovación Educativa, dirigiéndose para ello a la siguiente dirección: calle Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Asimismo, las personas concurrentes a esta convocatoria dan su consentimiento a la cesión de datos personales contenidos en el fichero a otras Administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco para finalidades coincidentes con el objeto de la convocatoria y autorizan a la Dirección de Innovación Educativa a comprobar en otros organismos públicos la veracidad de los documentos presentados.